



Josu OZAITA Antropologoa

Magia eta ehiza

Txakurra pasioan dabil, adi. Zeru zabalaren azpian gaude, arte leku batean; naturaren arteak bere magia aditzera ematen duen espazioan. Lasai dabil txakurra, ezer ez egiten ariko balitz bezala, nahiz eta ari den. «¡Busca!», entzun du, eta bizitu egin du gorputza. Halako batean, geratu egin da: sudurra lurrera gerturatu du, arnasaldi azkarrak hartuz. Aldameneko bi pertsonak erne jarri dira. Txakurrak begiratu die begietara; ez dago ezer. Jarraitu egin du...

“Abby” (Camerós, 2019) izena du txakurrak. Arku-me baten tankeran, ile kizkurra du. Mutur beltza, eta jarrera jolastia, “ur txakurra” izaki. Uretan erraz ibiltzen dira, eta arrantzaleen lagun onenak izan ziren itsaso zabaletan. Diotenez, itsasontzitik eroritako trasteak errekuferatzeaz gain, barkuen arteko komunikaziorako postari ziren. Ahate ehiztari porrokatuak, ahatea ez bazuten harrapatzen, erabilitako gezia errekuferatzen zuten. Izaera aktibo hori mantentzen dute, eta prest agertzen dira oraindik ekintzarako.

Denbora aurrera doa, presarik ez bada ere. Abby-k aurrera jarraitzen du, gizakiaren aldamenean. Jolasa edo lana izan daiteke; edo, nola bereizi biak? «Non dago? ¿Dónde está?», esaten diote hitz azkarrez, motibatzeke erritmoan. Beste ilara bat igaro dugu. Geldi!... Zrast, egin du oinarekin, lurra markatuz, “hemen duzue” esan nahiko balu bezala. Familia kide dituen pertsonak pozik jarri dira, oso. Zoriondu eta esker ona adierazi diote, hitzez, baita saritxoa emanda ere. Txalekoko patrikatik saltxitxa bat atera eta Abby-ri eman diote. Igurtzi egin dizkiote bizkarrara eta bularra, hitz goxoak tartekatuz. Harrotu egin da orduan Abby, eta lan-jolasarekin jarraitu du.

{ gastronomiaren antropologia }

Irribarre batekin daude bi pertsonak, poztasun txut bat hartuta. Txalekoak dituzte jantzita, belaun-babesak eta katiuskak. Bietako bat belauniko jarri da arte zuhaitzaren magalean, lurra gurtu nahiko balu bezala. Sastakaia bat atera du eta lurra mugitzen hasi da, Abby-k eginiko oinatzean. Lur zati bat harrotuta, eskuekin hartu eta sudurrera eramandu: «Usaina du!». Eta segi, usain horren jatorria aurkitu nahian. Sastakaia lurrean sartu, lurra atera, lurra usaindu... Eta hala, hortxe agertu da azala lokazturik duen lur azpiko ondhoa: boilurra. Gizakia hortxe, lurrean uxarrean, basurdearen tankeran.

LURRAREN LURRINA

Probatu orduko katigatu zituzten boilurrak Maria Jose Bringas “Jossete” eta Rodolfo Atauri “Txutxo”-k, Abby-ren lagunak. Kanpezuko “Siboney” artadia sortu zuten, hainbat artea zuhaitz landatuta. Orain 16 urte badituzte ere zuhaitzek, 8 urte itxaron behar izan zituzten boilurra biltzen hasteko.

Boilurraren kultura sortzen ari da Kanpezun, usain horrek harrapatu baliu bezala. Duela urte gutxira arte, ezezaguna zen trufa herrian. Edorta Lamo sukaldariak dio sekretuan oinarritu izan dela jarduera, goseak sortzen duen axeri dantzan. Berak kontatu di-

gu Kanpezuko boilurraren istorioa: Huesca inguruetatik, neguan “eskoetarik gabeko ehiztariak” etortzen ziren herrira duela hamarkada batzuk. Bertako kasinoan ostatu hartu, eta goizean ateratzen ziren ehizara, txakurrak lagun zituztela. Eskopetarik gabeko ehiza zen. Ostatua eta inguruak lurrin gogor batek hartzen zituen: ehiztari misterioetsuen zakuetatik zetorren. Kanpezuar batzuek, mendiko izaera horrekin, haien jarduera zelatatzea erabaki zuten. Zaila izaten du axerik beste axeri bat kuxkuxeatzea, eta laster ohartu ziren zuhaitzen atzean zokomiran zebiltzala. Hala, tratu bat proposatu zieten: trufen ehiza erakutsiko zieten, eurei saltzekotan. Hala hasi zen Kanpezuko boilurraren afizioa.

Hala ere, sekretupeko jarduera izan da, bizilagunen artean ere ia klandestinoa. Bada herrian jendea diru asko egin duena, ia inor ohartu gabe. Eta beste mundura joan dira, sekretua berarekin batera eramanda.

Gaur egun, bilketa basatia baino gehiago, norbanakoen artadietan burutzen da, eta jendeak errazago konpartitzen du ezagutza, edota usteen suposizioa. Jendeak bere lursailetan trufarekin mikorizatuak landatzen ditu, hortik urte batzuetara boilurrak biltzeko esperantzan. Hala ere, Txutxok



«Jossete», «Txutxo» eta Abby, boilurrak topatzen elkarlanean. OZAITA

esaten duen moduan, hau ez da patata erein eta jasotzea. Xarma berezia du, eta horrek egiten du berezi. Eta jardue-
ra horretan, txakurra ezinbesteko la-
guna da: bederatzi egun zituela, ama
hilzorian zuela, ekarri zuten etxera
Abby, bi eskuen habian sartzen zen
“untxitxo”. Bi hilabete igarotzerako,
lehen boilurra topatu zuen, orduan
“anai zaharra” zuen Boss txakurraren
imitazioan.

Miresmenez oroitzen dute “Boss”,
Jossete-k kontatzen digu: «Seinalea
egiten zigun oinarekin lurrean. Ez ba-
genuen aurkitzen, berriro egiten zi-
gun, eta oraindik topatu gabe bagen-
biltzan, berak ateratzen zigun
ahoarekin», inozo aurpegia geratzen
zitzaielarik. Txakurrek super-boterea
dute, gizakiekin alderatuz, usaimena-
ren zentzumenean: txakurrek 220 mi-
lioio usaimen zelula omen dituzte, eta
gizakiek, aldiz, 5 milioi. Eta umildu egi-
ten dute gizakia, ahalguztidunaren
fantasia eraitsiz.

Kume diren garaitik hasten dira tx-
akurrari trufaren usaina erakusten. Ba-
tzuetan, trapu bat usainarekin ema-
nez, hura gordez. Besteetan, poto
batean sartuta, eta ezkututuz. Saritxoa
eman, zoriondu, eta denborarekin, en-
trenamendu hori are eta konplexua-
goa egin.

Beste toki batzuetan, txerriekin edo
etxekotutako basurdeekin ere egiten
dute, eta bada beste modu bat ere: ma-
kilatxo batekin lurra ukitu, eta gerta li-
teke eltxo txikito bat altxatzea. Berriro
boilurra dagoen lurraren gainera itzu-
liki da, bere arrautzak han daudelako.

Baina usaimena da protagonista jar-
duera honetan, txakurraren usaimena
nagusia, eta gizakien zaletasuna. Trufa-
turiko lur hori usaintzearen momentu
hori maite du bikoteak, eta trufa behin
eta berriz usaintzea, birika luzeko ar-
nasaldian. Lurrin berezi hori, bat ha-
rrapatzen duena, erotzen duena.

NATURAREN MAGIA

Usaimenak protagonismoa duen jar-
duera izateak, ikusmena bigarren pla-
nora igarotzeak, ematen dio erakarga-
rritasuna. Bestetik, naturan garaturiko



Boilurraren usaina memorian itsatsita geratzen da. OZAITA

magia izateak ere bai, zientziak kontro-
latu ezin duen arnasmuna.

Zuhaitzaren sustraian eta onddoaren
arteko sinbiosia gauzatzen da, elkarla-
na. Kolaborazio hau gabe, ezingo luke
bizi. Ikusezin diren ile txiki batzuekin
sortuko du harremana sustrai eta lurra-
rekin, hostoetatik azukre eta aminoazi-
doak zurrupatzuz, eta jasotzeaz gain,
eman ere egingo du: elikagai hobea
hartzen lagundu, uda beroan hezetu...

Lur azpian egonda, esporak zabaltze-
ko estrategia da lurrin indartsua jaria-
tzea. Hala, basurdeak hurbilduko zaiz-
kio. Jan egingo dute, baina bere
ezpainetan barreiatuko dituzte esporak.

Lurraz gain, ura ere behar dute, bal-
dintza batzuk. Hala, udako euri jasak
maite dituzte, eta udako kazkabar
ekaitz batek ez dio kalterik egingo. Ar-
tea zuhaitza zigortuko du ekaitzak, eta
horrek, sustraiek errekuiperatzeko lan
gehiago egin beharra sortuko du, boi-
lurrei ere indarra emanez.

Jossete eta Abby-rekin artadian goazela, arte
zuhaitz bakoitzean dauden zirkunferentzia batzuk
erakutsi dizkit. «Seinale bat dira, hor trufak egon
daitezkeela esan nahi du. Trufak badu antibiotiko
efektua, eta ingurua soiltzen du». “Erreketak” dei-
tzen dira, eta horien intentsitateak trufaren presen-
tzia adierazten du.

Klima, altuera, ura, lurra, airea eta zuhaitzaren
baldintzen arabera aterako da boilurra, ia magia be-
zala. Horregatik esaten da boilurra ehizatu egiten
dela, eta noski, baita txakurrarekin harrapatzen de-
lako ere. Sinesmenak daude, eta bakoitzak fedea du
bere usteetan, ia erlijioan bezala.

“Horrela da...” esan ordez, “uste dugu...” esaten de-
la esan dit Jossetek. Ez dago zientzia zehatzik, denak
dira usteak, nahiz eta azken urteotan informazio
gehiago dagoen. Udan, habiak egiten dituzte lu-
rrean, konpost eta trufa zatiak txigortuta, diotenez,
boilurra sortzeko baldintzak laguntzen dituelako.

Eta ezin dugu gizakiek kontrolatu erabat, eta hori
gauza bikaina da, beste harreman batean kokatzen
gaituelako, eta agian, ona litzateke zientziak gehiegi
ez aurreratzea, magia hori ez itzaltzeko.

Magia izateaz gain, afrodisiakoa dela esaten dute,
begiak itxi eta bere usainaren irudimenak eraman-
go zaituela sexu lizunera. Behin usaintzen baduzu,
itsatsita geratuko zaizu memorian.

BIZIPOZA LUR AZPIAN

Bizia ematen die Jossete eta Txutxori boilur ehizak.
Txakurrak hartu eta asteroko itzulua egiten dute
denboraldian, azaroan hasi eta martxoa bitarte. Ba-
tzuetan, saria jasotzen dute boilur batzuk harrapa-
tuta, lurra usainduta. Besteetan, saria jasotzen dute:
naturarekin kontaktuan egonda, mobila ahaztuta,
txakurrekin gozatuta...

Txutxo ez omen zen txakurzalea, baina boilur
ehizak banaezin bilakatu ditu Abby eta bera. Jada
txakurrik gabe ez du ulertzen bizitza, etxeko giroa.
Txakurraren eta gizakiaren arteko sinbiosia ere sor-
tu du boilurrak.

Boilurrak hartuta, Kanpezuko “Arabako boilurra”
kooperatibara eramaten dituzte. Handik zabaltzen
dituzte jatetxeetara. 45 bazkide dira, 200 hektarea
kudeatuz eta 1.000 kilotik gora boilur bilduz ga-
raian.

Eta guk gozatzen segiko dugu. Boilur baten usaina
estimatzuz. Gomendio bezala, jaki soil batekin uztar-
tzeko esan digute, eta guk, txintxo asko, gaurko sa-
ria eraman dugu etxera. Tuper batean dozena bat
arrautza eta trufa eduki ditugu elkarbizitzan. Arrau-
tzaren poroetatik usaina arrautzan barneratuko da,
magia moduan, eta hurrengo arrautza frijituek tru-
fa lurrina izango dute.